

BALEIKE

KORONABIRUSA ZUMAIAN
**ETORKIZUNERAKO
TESTIGANTZAK**

Zumaia
**HERRI BAT
COVID-19
OLATUEN AURREAN**
DOKUMENTALA

Zuzendaria

JON MAIA

Partagaritza

ZUMAIAKO HERRITARRAK

PURIFICACION TENA, IÑAKI OSTOLAZA, ROSA AZTUVE, NARLOS DEL PILAR, MARIA LUISA UBERA,
GUADALUPE EGARA, LAXARO EGARA, INAKI AIZPURUA, AIBANE BERRIOZABAL, MALEN AIZPURI,
EDEN KALPARSORO, ION VELARDE, ANDER MANTEROLA, IBAÑE ASTIBARRAGA, ESTI IRRIBAR, OIER
AIZPURUA, IRATXE ALBIZU, IZKUX IRRIBAR, ROSARIO ANGOLA, ITZASO AGIRREZABALAGA, IRUNE
ARANGUREN, NAIA LARRANAGA, MALEN LARRANAGA, PEIO OSTOLAZA



ESTREINALDIA

2021 | MARTXOAK 27-28-29 | AITA MARI ZINEMAN
INFORMAZIO GEHIAGO: ZUMAIA.EUS





ENDAÑETAK
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TiEN21



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86



BALEIKE 308

2021-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | |
|---|---|
| <p>4 Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Kepa Aizpurua</i></p> <p>6 Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
Aprea
<i>Ezkontzak</i></p> <p>8 Hainbat aburu Aisling Bux
Romatet eta Aitor Iburguren
Balentziaga
<i>Karitate hutsetik haratago</i></p> <p>9 Errematea Miren Osa Galdona
<i>Mugen amarruak</i></p> <p>10 Erreportajea Amaia Urbietarruti
<i>Biharko memoria gaur sortzen</i></p> <p>16 Elkarrizketa Jabi Gonzalez Toston
<i>Janire eta Annette Gonzalez</i>
<i>Etxebarri: "Jendeari huts egiteko</i>
<i>beldurra ere badugu gure</i>
<i>etorkizunaz hitz egiten denean"</i></p> <p>20 Erretratua Maria Maya Manterola
<i>Izar Martin, autoeskolako irakaslea</i></p> | <p>24 Bazkidetza</p> <p>25 Heziketa Mireia Centeno
<i>Nola jarri mugak haurrei?</i></p> <p>26 Plazan bazan</p> <p>29 Osasuna Rosa Azkue
<i>Bihotz gutxiegitasuna (III)</i></p> <p>31 Zientzia eta ingurumena Gorka
Zabaleta
<i>Etorkizuneko energia III: Zumaiaren</i>
<i>aukerak</i></p> <p>38 Orduan bai Imanol Azkue Ibarbia
<i>Haiek bai estropadak!</i></p> <p>43 Agenda</p> <p>44 Literatura Antton Peñalba
<i>Berlin blues</i></p> <p>45 Nire txanda Jon Mantzisor Uria
<i>Gailuak eta gu</i></p> <p>46 Azkena Juan Luis Romatet
<i>Franco</i></p> |
|---|---|

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Maria Maya Manterola
mmaya@ukt.eus
Erredaktore taldea
Juan Luis Romatet
Onintza Lete Arrieta

Imanol Azkue Ibarbia
Amaia Urbietarruti
Jabi Gonzalez Toston
Argazkilaria
Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
Administrazio
arduraduna
Uxua Ostolaza

administrazioa@baleike.eus
Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Kepa Aizpurua

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Kabi tabernako jabea da Kepa Aizpurua (Zumaia, 1976), eta Kbi xake klubeko kidea ere bai. Bere tabernan jarri dugu hitzordua, Kabin, xakearen Zumaiako habian. Girotze moduan, Netflixeko *The Queen's Gambit* telesaila du jarrita telebistan.

Topiko batekin hasita: xakea kirola al da?

Batzuek diote aurrez aurre jokatura kirola dela, baina online denean joko dela. Ez diet kontu horiei garrantzirik eman inoiz, eta ez da debate erraza: gauza batzuetarako komeni da kirola izatea, baina niretzat gehiago da joko.

Tabernak leku egokiak al dira xakean aritzeko?

Nire ustez bai. Orain Internetekin agian galduko zen, baina betidanik jokatu da tabernetan. Parisen, Café de la Régence-en biltzen ziren orain bi mende xakean jokatzeko; han mugitzen zen saltsa guztia. Lehiaketak baino nahiago dut lagunartean jokatzeko dena, tabernetako giroan, kafe edo zerbeza batekin lagunduta.

Zerk erakartzen zaitu xaketik?

Betidanik jokatu izan dut, baina gerora ahaztuta ere izan nuen, eta gero berreskuratu nuen. Gerora, beste adar batzuetatik hasi nintzen gauzak ikusten: hezkuntzarekin duen lotura, dituen abantaila terapeutikoak... Eta horrek atentzioa oraindik eta gehiago piztu zidan.

Beste topiko bat: xakea jakintsuentzat da.

Azkenaldian ikusten ari gara edozeinek joka dezakeela xakean. Oso erraza da; ordu erdian ikas daitezke mugimenduak. Gero kontua da norberak noraino garatu nahi duen. Azkenean, korrika egitea bezala da: lehen ez zuen hainbeste jendek egiten, eta orain hedatu da, osasun fisikorako ona delako. Xakearekin berdin gertatzen da. Leontxo Garciak dioten bezala, xake partida bat jokatzeko, edo gurutzegramatik bat egitea, buruarentzat ona da. Burua zaintzeko tresna bat izan daiteke xakea.

Zer behar da xake jokalaritza onatzeko?

Gaitasun batzuk eduki behar dira: adimena, kalkulua... Jokaldiak aurreratzeko gaitasuna ere eduki behar da; mentala, baina espaziala ere bai.

Jendeak uste du hainbat jokaldi pentsatu behar direla aurretik. Baina hori baino gehiago da ondo estrukturatzea 64 lauki hauetan, eta jokaldi txarrekin ez pentsatzea. Belar txarra kendu, eta bidea ixtea, alegia.

Kirola gazteen kontua bezala ikusten da. Eta xakea?

Xakeak ona duena da edozeinek joka dezakeela, edozein adinekin ikas daitekeela. Noski, txikitan ikasten baduzu, garatzeko ahalmen handiagoa izan dezakezu. Baina ona du hamar urteko haur batek bere aitonekin jokatu dezakeela. Horixe du polita, edozeinek duela jokatzeko, bai neska, bai mutil, eta adinak ez duela garrantzirik.

Xake kluba sortu zenuten herrian. Zergatik?

Zaletasun pixka bat bazegoen. Hiru lagun elkartu ginen, eta horien haurrak, bi, oso ondo ibiltzen ziren. Hori guztia sustatzeko sortu genuen taldea. Ikusi genuen gauza asko egin zitezkeela herrian, eta horren beharra bazegoela.

Liga oso ondo hasi zenuten.

Ligan igoera fasean sartu ginen, baina federazioak bukatutzat eman zuen txapelketa, eta fasean sartutako denak mailaz igo ginen, bigarren mailara. Baina aurten ere ez da jokatu. Momentu honetan dena geldirik dago. Guri bereziki gustatzen zitzaigun txikiekin lokalean biltzea eta jokatzeko. Hasiberriak gara eta hau parentesi bat bezala ikusten dugu; itzuliko gara.

Xakea Gernika parkera ateratu duzue orain

Hogarrareko lokala itxita zegoen, eta noizean behin tabernan ere elkartu gara jokatzeko. Parkera eramanda, jende pixka bat gehiago erakartzeko ideia izan dugu. Pare bat eguerditan elkartu gara. Eguraldiarekin kontuz ibili behar dugu, baina gustukoa dut hor sortzen den giroa.

The Queen's Gambit telesailak arrakasta itzela izan du.

Nik uste dut ari dela laguntzen, eta neska gehiago ari dela xakean jokatzeko. Oso gustura nago, sortu duen guztiagatik. Bai neskak xakean aritzera animatu dituelako, horretarako erreferente bat sortuz; baina baita orokorrean xakean jokatzera animatu dituelako. Telesailari esker asko zabaldu da xakearen inguruko afizioa mundu mailan. ■■■



Ezkontzak

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Gizarteko sektore guztiei eragin diete COVID-19aren ondorioz hartutako urruntze neurriek, bereziki ekitaldien eta ezkontzen sektoreari. Ezkontzeko helburua zuten bikote askok beraien asmoak alde batera utzi behar izan dituzte, pandemiaren amesgaiztoa desagertuta, une hobeak etorriko direlakoan. Asko falta ote da une hori heltzeko? ■■■

Datu teknikoak:

Kamera: Nikon D750

Objektiboa: Sigma 24-35 mm f2 ART

Foku distantzia: 35 mm

Diafragma: f4

Obturazio abiadura: 1/2000

ISO: 400

Instagram: [@arnaitzrubiofoto](https://www.instagram.com/arnaitzrubiofoto)







Karitate hutsetik haratago

Nolabait, azken mendeen zehar mendebaldeko estatuen aldetik inklusibitatez eta ustez oinarritzko eskubideen babeserako bideratutako politiken gorakaden itxura eman digutela esan daiteke. Hala ere, ezin dugu ahaztu gure gizarteetan errotuta jarraitzen duten joera arrazista eta xenofoboaren presentzia. Are gehiago, menperakuntza mekanismo tradizionalak gaurko botere sisteman arrasto sinboliko bat baino gehiago suposatzen dute: esaterako, “pobreziaren arrazializazio” fenomenoaren edo gorrotozko delitu arrazista tasan.

Testuinguru horretan, badira hainbat gobernu kanpoko elkarte, zeinak enfasi berezia jartzen dioten arrazismoaren aurkako borrokari eta kolektibo

arrazializatuen integrazioa bideratzeari. Gure hitzetan, “kaleko politika” eginaz, edo politika kalera eramanez. Hauen baitan indar handiko elkarte bat SOS Arrazakeria da, 1995etik Espainiako estatuan zehar zabaldu dena, Frantziako SOS Racisme ereduari jarraituz. Biok graduko azken urte honetan haiekin praktikak egiteko aukera izan dugu, batetik psikologia, eta bestetik kriminologia ikasketetatik.

Gipuzkoako SOS Arrazakeriak, konkretuki, tokiko urgentziak

**EZIN DUGU AHAZTU
GURE GIZARTEAN
ERROTUTA JARRAITZEN
DUEN JOERA
ARRAZISTA**

aintzat hartuz, finkaturiko helburuak lortzeko ekintza edo ekimen ezberdinak antolatzen ditu, hala nola, migratzaileei aholkularitza zerbitzua legeek eta administrazioak behartuta egin behar izaten dituzten izapideetan, mobilizazioetarako deiak, hitzaldiak, mintegiak eta topaketak... Praktiketaren elkarte berean egon arren, proiektu ezberdinetan aritu gara biok.

Psikologia arlotik, Urretxindorra proiektuan parte hartzen da: gizarte zaurgarritasunean aurkitzen diren adingabe etorkinekin egiten den proiektu bat da, hau da, arduradunek boluntarioak bilatzen dituzte adingabe atzerritar batekin harremanetan jarri eta aisialdi eta harreman alternatibo bat eraikiz.

Kriminologia arlotik, SOSe parte hartzen duen Hiritarren

HAUXE BAI JENEROA!



Harrera sarean murgiltzen da; proiektu hori guztiz zuzeneko kontaktuan oinarritzen da, aipaturiko “kale politikan”. Duela urte batzuk gero eta errefuxiatu eta etorkin gehiago iristen hasi ziren eta haien egoeraren aurrean sortu zen. Haien bidaiari, informazioan, paperekin eta ongizaterako beharrezko baliabideekin lagundu eta akonpainamendua egitea da helburu, betiere administrazio publikoaren zerbitzuetatik ihes egiten duten gazetan zentratuz.

Proiektu berri bati ere heldu diogu. 4/2000 Atzerriartasun Lege Organikoan emandako erreforma bat dela medio, Espainiako justiziak gero eta gazte etorkin gehiagori erresidentzia baimena ukatzen dio, eta Estatu espainiarrean eta EAEn aurkitzen diren hainbat

gazteren kanporatzea agintzen du edo geratzea eragozten du. Horren aurrean, hori salatzeke ekintzak antolatu zituen gazte talde batek; elkarretaratze bat deitu eta egoeraren inguruko informazioa helarazteko bideoak grabatu zituzten sare sozialetarako, aldaketaren ondorioak pairatzen dituzten testigantzak zabalduz.

SOSen lortu ahal izan dugun errealitatearekiko kontaktutik azpimarragarriena kontzientziazio “eroso” edo laguntza karitatibo hutsetik haratago joan eta aktibismo edo militantzia inplikatuago batean murgiltzea dakar. Hori, betiere subjektu politikoa zein den gogoratuz eta horren ahotsari indarra emanaz, betiere gure pribilegioetatik eta modu horizontalean lan egiten saiatuz. ■■■

ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Mugen amarruak

Ez dakit lerrook irakurtzean zein egoeratan egongo garen: soilik Euskal Herrian barrena mugitzeko moduan; mugakide den herrira jarduera sozioekonomikoak egitera bai, baina laguna bisitatzea galarazita edukiko dugun aldiari, edo herriko mugak zein diren ongi baino hobeto markatuko diguten garaian.

Etzeko paretak zeintzuk diren ikasi dugu, behintzat: “Andikara baseritik aurrera Deba da”, hala adierazi nahi zutela sentituko zuen batek baino gehiagok ertzainen kotxea herriko muga zehazten ikustean. Oikiarrek ere aspaldian ez zituzten hainbeste zumaia bertatik pasatzen ikusiko, eta Santiagoko tunelak inoiz ez bezala markatu du Zumaia-Getaria arteko harresia. Iparraldetik eskerrak itsasoa dugun lagun, lau hormetako bat zabalik mantentzeko moduan izan baikara.

Pandemiaren kudeaketak agintarien mundu ikuskera indartzea ekarri du. Frantziak mugak itxi zituen otsailean, eta Hego eta Ipar Euskal Herrian arteko joan-etorriak baldintzatu zituen. Kantabriara eta Nafarroara ezin joatea maila berean jartzen duen hedabide publiko bati so egoten gara iluntzero, eta Madrilek esango duenaren esperoan pasatzen ditugu egunak. Ikasi ditugu mugakideak, ez ditzagun irentsi euren harresiak. ■■■



Biharko memoria gaur sortzen

Txundigarria, gogorra, mugarra... hamaika modutan deskribatu daiteke 2020a. Garbi dago historiara igaroko dela urte hori eta, une historikoak zuen pisuaz jabetuta, zumaiarren ondarean geratuko den pieza bat osatu dute Zumaiako Udalak, UKTrekin egindako elkarlan-hitzarmen baten bidez. Jon Maiak egin ditu zuzendari lanak, eta 'Zumaia, herri bat COVID-19 olatuen aurrean' lana izan da emaitza.

Testua: **Amaia Urbieta Arruti.**
Argazkiak: **Arnaitz Rubio**
Aprea.

Historia izan ohi dute oinarri sarritan kulturak eta arteak. Hari begiratzea omen da oraina ulertzeko eta etorkizuneko bidea hobeto jorratu ahal izateko modua. Normalean, ordea, jendarteak ezagutu duen historiak iraganean izan du oinarria. Horri buelta eman nahian, eta iazko urtea historiara igaroko zenaren jakitun, Zumaiako Udalak garbi ikusi zuen iazko martxotik aurrera gertatu zenak jasota geratu behar zuela nolabait, hemerrotekatik harago. “Historia pasatu eta gero ikusten eta irakurtzen dugu. Gero ateratzen dira liburuak, analisiak, pelikulak... Hainbat gertakizun historiko ez ziren grabatu bere momentuan, eta guk ez dakigu hemen aurreko izurriteak, esaterako, nola bizi izan zituzten”. Hala dio Jon Maia Soriak, *Zumaia, herri bat COVID-19aren olatuen aurrean* dokumentalaren zuzendariak. Dokumental bat izan baita, azkenean, hasierako asmo lauso haren emaitza. Joan den martxoaren 27an eskaini zuten lehenengoz herriaren ikus-entzunezkoa, eta *BALEIKE* ezin izan du estreinatu ondorengo sentsazio zein bizipenik erreportaje honetan jaso, lana lehenengoz jendaurrean erakutsi aurretik hitz egin baitu sortzaileekin.

Marina Bidasoro Arozena Kultura zinegotziarena izan zen lekukotzak jasotzearen ideia, eta hark sustatu zuen proiektua, memoriak duen garrantziaren jakitun. “Zumaian bizi diren pertsonen testigantzak jasotzea pentsatu genuen hasieran, baina ez geneukan oso argi zer irizpide erabili. Nahi izan dugu gure oroimenean gorde azken urtean gertatu diren hainbat gauza,





datozen belaunaldiek eduki dezaten hori”, adierazi du.

Prozesua

Udalak ez zeukan baliabide propiorik egin nahi zuen hori gauzatzeko, eta UKTgana – Urola Kosta eskualdeko euskarazko egunkaria, telebista eta lau herri aldizkari batuta; tartean, *BALEIKE*–jotzea erabaki zuen, aurretik ere esperientzia zuelako komunikazio talde horrekin elkarlana egiten. “Bageneukan harremana, eta *BALEIKE* ere bere aldetik ari zen jasotzen gertatzen ari zenaren testigantzak eta abarrak. Kultura eskaintza ere ari ziren egiten jendearentzat itxialdiko egunetan, eta nahikoa naturala izan zen beraiekin kontaktuan jartzea”, azaldu du zinegotziak.

Bidasorok aditzera ema du ez zela beraien asmoa testigantzak bata bestearen atzetik jasotzea; jendearen ahotsari “testuingurua” eman nahi zioten, zentzua izan zezaten denek osotasunean. Hori zela eta, Maia zuzendariarekin jarri zen harremanetan *BALEIKE*, eta hark egin ditu zuzendari lanak. Aurretik eginak ditu lau dokumental Maiak, eta abila da hitzekin eta

irudiekin jolasean. Berezia izan da azken lan hau beretzat, ordea, inoiz ez baitzaio egokitu Zumaia ardatz duen lanik egitea.

“Zumaiaren erretratu moduko bat egin behar nuen. Lanerako errazagoa izan da, horren haritik, dena oso eskura geneukalako eta jendea oso prest egon delako. Komertzioak, tabernak, herritarrek, azpiegituretako jendea, langileak... alde horretatik, oso eroso izan da, jendeak asko lagundu digu. Egin izan ditudan aurreko dokumentalekin konparatuta, askoz ere errazagoa izan da hori kudeatzea. Bestetik, ordea, ardura berezi bat ere sentitu dut”.

Dagoeneko gauza jakina da koronabirusak eta haren ondorioek eragina izan dutela esparru den-denetan, mundu osoan. Ez da erraza halako fenomeno erraldoi batek sorrarazi duena pantailara eramatea ordubeteko pieza batean, kontuan hartuta bazter guzti-guztiak daudela zipriztinduta. Sortze lanetan erabakiak hartu behar dira, ordea, eta Maiak kontuan hartu du une oro egiten ari diren hori “etorkizuneko zumaiarrek ikusteko dokumentala dela, oraingoek baino gehiago”.

Perspektiba horretatik abiatuta osatu du gidoia Maiak, eta azaldu du batez ere hiru baliabide erabili dituela ikus-entzunezkoari forma emateko: *BALEIKE*ren artxiboko irudiak, mundu mailako gertakizunen irudiak eta Zumaian propio grabatutako elkarriketak. Horri guztiari forma ematen asmatzea ez da lan erraza izan, Maiaren aburuz. “Garbi neukana zen ez zela nire dokumentala, herritarrena baizik. Nik dokumentatu dut zer gertatu den, eta ez dut bilatu hor zer iritzi proiektatu”. Herri txikia bada ere, dokumental bakarrean ezinezkoa da zumaiar guztiei ahotsa ematea, eta buelta asko eman zizkion Maiak ikus-entzunezkoan atera beharreko sektoreei. “Gremioka hasiz gero, banekien batzuekin kunplituko

nuela eta beste batzuekin ez. Orduan, pentsatu nuen gaika egitea: bakardadea, krisia, heriotza, gazteak... horrela, sektoreak zeharka agertzen dira”, argitu du zuzendariak.

Jasota geratzearen garrantzia

“Historiaren pertzepzioa asko aldatzen da kontatzen dena oroitzen dena denean”, dio Maiak. Hori da, hain zuzen, estreinatu berri den dokumentalاک daukan berezitasunik behinena, kontatzen dena gertatzen ari dena dela, ez oroitzen dena. Horregatik dio Maia zuzendariak “biharko zumaiarrek ikusteko” lana dela.

Bidasorok memoriaren gaiaz hausnartu du, eta azpimarratu du herri baten ondarearen “zati inportantea” dela. “Gure ondarea ez dira gauza fisikoak bakarrik. Pertsonen bizipenak ere badira ondarea. Normalean, horrelakoetan, atzera begiratu eta momentu hartan bizi ziren pertsonen testigantzak jasotzen dira, baina orain alderantziz egin dugu, kontziente ginelako zeinen une historikoa bizitzen ari ginen”. Maiak azpimarratu du dokumentala “dokumentua” dela zentzu hertsian. “Koronabirusak eragin duena, zalantzarik gabe, mugarri izango da mundu guztian. Historia liburuetan, pelikuletan eta denetan agertuko da. Nire ustez, luxua da Zumaiak ere dokumentatuta edukitzea gertatzen ari dena, bere larritasunarekin, zumaiarren pentsamenduekin... memoria historikoa orain ari gara sortzen”. Ikus-entzunezkoak etorkizunean orain izan dezakeena baino “balio handiagoa” edukiko duela ere uste du zuzendariak. “Orain oso sartuta gaude historian. Oraindik ez da bukatu eta duela gutxikoak dira dokumentaleko irudi asko. Etengabe ari gara telebistan koronabirusaren berriak aditzen oraindik, baina 40 urte barru hau aspaldiko gauza bat izango da, eta orduan asko gustatuko zaie hau ikustea”.

Kultura zinegotziak nabarmendu du dokumentalean kontatzen dela “nola egin dion aurre herriak halako krisi egoerari”. Hori gertutik ezagutzeko dokumentala bera ikustea izango da onena, baina zer iruditu zitzaion Bidasorori zumaiarren jarreratik azpimarragarriena? Zinegotziak uste du lortu duela Zumaiak egoerari “aurre egitea modu positiboan, elkarlanean”. “Gizakiok oso geurekoiak izatearen irudia ematen dugu batzuetan; bakoitza bere munduan sartuta dago gero eta gehiago, baina honekin izugarritzko erantzun solidarioa ikusi dugu”. Herriko hainbat norbanakok zein kolektibok zailtasun egoera hari emandako erantzuna “eskertzekoa” dela dio Bidasorok. Adibidetzat jarri ditu maskarak egiteko sortutako jostun sarea edota erosketak egiteko zailtasunak zituztenei laguntzeko antolatutako taldea. Maiak ere uste du boluntario sareak “azkarrak eta eraginkorrak” izan zirela: “Hor frogatu dugu komunitate sentimendua, eta posible dela egoerei aurre egitea elkarrekin antolatuz gero. Instituzioetatik, baina baita horietatik kanpo ere. Sistemak ez duenean erantzun, herritarrek erantzun dute



**BIDASOROK AZALDU DU
JENDEAREN AHOTSARI
"TESTUINGURUA"
EMAN NAHI ZIOTELA**

**HERRIAK KRISIARI
EMANDAKO
ERANTZUNA "HARRO
EGOTeko MODUKOA"
DA, MAIAREN HITZETAN**



eta beraiek bete dituzte sistemak bete ezin zituen funtzioak”.

Egoera aldakorra

Unean bertan gertatzen ari den zerbait dokumental batean jasotzeak badu beste zailtasun gehigarri bat ere: noiz eman bukatutzat lana? Izan ere, garbi dago COVID-19aren eraginek luze jarraituko dutela jendartearen. Hala azaldu du Maiak: “Honek daukan ezaugarrietako bat da ez dakigula noiz bukatuko den eta ez dakigula nolako eboluzioa edukiko duen. Bukaera aldera, momentu sinbolikoa da Zumaian hartzen den lehen txertoa. Horrek ematen dio biribiltasuna piezari; beraz, nolabait, urtebeteko kronika da”.


Herriko festa kuttunenena ere atera ditu hizketaldira zuzendariak, 2020ko


santelmoak “ezagututako ederrenetakoak” izan baitziren Maiaren aburuz. “Niretzat oso hunkigarria izan zen ikustea herria nola zegoen. Denok etxean geunden sartuta, oso egoera berezia zen denon bizitzan eta munduaren historian, eta santelmoak izan ziren haize freskoa bezala”. Iazko San Telmo festetako irudiek “sinbolismo handia” dute Maiarentzat: “Eder egon zen herria urdinez, banderolak, musika... sentimendu berezi batekin bizi izan genituen”. Gaineratu du ahalegindu direla dokumentalean jasotzen herrian baldintzatuta egin behar izan diren beste hainbat ospakizun berezi, Gabonak, esaterako, baina garbi dago santelmoek bestelako pisu bat dutela zumaian askorengan. Data ere berezia da, iaz inguruan bertan behera utzi behar izan zen lehenengotariko ospakizuna izan baitzen. Maiak aipatu du herrian jarritako lehen txertoa baliatu dutela dokumentala biribiltzeko, baina, nolabait, “santelmoetik santelmora” jazotakoaren kronika ere badela dio zuzendariak.

Egindako lana herritarren eskuetan dago dagoeneko. Zumaiarrek ikusi ahal izan dute beren herriaren historiaren zatitxo bat kontatzen duen lana. Galtzak bete lan ibili da Maia estreinatu berri duten lana egiten, eta guztia erraza izan ez den arren, azpimarratu du eskertzekoa dela ikus-entzunezkoan parte hartu duten guztiek erakutsi duten prestutasuna. “Eskerrik asko atek zabaldu dizkiguten eta lana erraztu diguten zumaian guztiei. Uste dut harro egon gaitezkeela oro har gure herriak mundu mailako krisi honi emandako erantzunarekin”, burutu du. ■■■

Lehenengo konexioak egiteko prest dago ZOZ sarea

Parolaldeko, Larretxoko eta Ardantzabideko etxebizitza eta lokaletan martxotik aurrera erabilgarri

 labur.eus/ZOZ

 zoz@guifi.net

 656 511 916



Zumaia
Udala



ESKATU DOAN ZURE ZUMAIA VISA TXARTELA

DOAN
15€

Eskatu orain zure Zumaia Visa Txartela eta eramanez doan 15€! Eta gainera gozatu eskaintzen dituen abantailez!!

*Uztailaren 30era arte



Doako aseguruak ditu

Deskontuak, sariak, zozketak, puntuak...

Visa txartel batak dituen abantaila guztiak

Berhalako kontsumorako kreditua eskaintzen ditu

Ordaindu 3 hilko epean interesik gabe



"Jendeari huts egiteko beldurra ere badugu gure etorkizunaz hitz egiten denean"

JANIRE ETA ANNETTE GONZALEZ ETXEBARRI SURFLARIAK

Janire eta Annette Gonzalez Etxebarri ahizpek hamar eta zortzi urte daramatzate Kantauri itsasoko urertzetik mugitu gabe. 6 urterekin surfeko taula gainera lehen aldiz igo zirenetik, olatuetan malabarismoak egitea da euren egunerokoa. Pasioa ofizio bihurtu nahi dute datozen urteetan.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Janire dago amets hori egia bihurtzetik gertuen. 16 urte baino ez dituen arren, dagoeneko erakutsi du onenen parean dagoela. Nagusien mailan, Espainiako txapelketa irabazi duen surflari gazteena da. 14 urterekin irabazi zuen. 15ekin, berriz, Europako txapelkun izendatu zuten junior pro mailan, eta pasa den azarotik, Bat Basque Teamek, goi mailako kirolarientzat Bizkaian duen Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroan igarotzen du astea.

Annette bi urte gazteagoa da. Ez du ahizpak bezain palmarek potoloa, baina orain arte pilatu dituen emaitzak ez dira makalak. Iaz, Espainiako 16 urtez azpiko txapelketan brontzezko domina jantzi zuen, esaterako.

Nondik datorkizue surfarekiko zaletasuna?

Annette Gonzalez Etxebarri: Ahizpa zahararren influentzia izan da guztia. Janire animatu zen lehen eta atzetik joan ginen beste hirurak. Ni lehenengo eta Julen eta Enaitz anaia bikiak ondoren. Guztioi gustatu zitzaigun eta hor jarraitzen dugu.

Janire, surflari-familia honi hasiera eman ziona zu zarenez, goazen hasiera hartara. Nola lortu zenuen bidea egitea zu baino nagusiagoak ziren surflari haien guztien artean?

Janire Gonzalez Etxebarri: Lagun batekin ikastaroa amaitu ondoren, eskolan genuen soinketa irakasle Xabirekin hasi ginen surfa gure kasa egiten. Berarekin joan ginen lehen aldiz Orroagara eta berak irakatsi zigun olatua datorrenean nork duen lehentasuna. Uretan hika-mika dezente izaten dira eta garrantzitsua da kidearen olatua errespetatzen jakitea.

Astean zenbat denbora pasatzen duzue uretan?

AGE: Nire kasuan, egunero bi ordu edo ordu eta erdi egiten dut uretan neure kasa, eta astean bitan, 3 orduko entrenamenduak izaten ditut Zarautzen, Ibon Amatriainekin. Entrenamendu horietan, olatuak hartzeaz gain, indarra lantzeko bestelako ariketa fisikoak ere egiten ditugu. Uretan, beraz, nire kasa entrenatzen dut gehienbat, eta olaturik ez dagoenean, Askizura joateko ohitura dut. Oinez eta korrika, biak.

JGE: Nik orain ez dut neure kasa hainbeste entrenatzen. Faduran nagoenetik, asteburuetan soilik aritzen naiz entrenatzailek gabe. Hori bai, diziplina handiagoa da orain. Ordu-tegi finkoak ditugu eta fisikoa askoz gehiago lantzen dugu. Egunean ordu bat gutxienez. Surfean berriz, 20 bat ordu egiten ditugu astean.

Pandemiak duela urtebete ekarri zigun itxialdian ezin izan zenuten surfik egin. Nola eraman zenuten?



JGE: Surfik ez genuen egin konfinamenduak iraun zuen bitartean, ez. Baina geldirik ere ez ginen egon. Egunero egin genituen ariketa fisikoak etxean eta bideo ugari ikusi genituen. Behin neurriak altxatzen hasi zirenean, uretara itzuli ginen fisikoa alde batera utzita. Araututako ordutegia luzatzeko baimen berezi bat egin zigutenez, denbora dezente pasatzen genuen uretan.

Esan behar dut, era bereran, pandemiak eman didala Bat Basque Teamen eskaintza onartzeko azken bultzada. Aurretik ere egin zidaten eskaintza, baina orduan entrenatzaile nuen Julen Lasarekin gustura nengibilen, eta ezetz esatea erabaki genuen. Deskonfinamenduan, ordea, ziurgabetasuna zen nagusi, ez nengoen guztiz eroso eta Bat Basque Teamen bigarren deia jasotzean baietz esan genion. Gure inguruan galdetuta, aukera ez galtzeko esan ziguten, gainera.

Eskaintza hori onartzeak banandu egin zaituzte. Elkarren falta sumatzen duzue?

AGE: Ez [barrez]. Egia da lehen egunero geundela elkarrekin, baina Janire astebururo Zumaiara itzultzen denez, astero elkartzen gara. Aste barruko bainuetan igarri dut gehien ahizparen falta hori. Neguan uretara bakarrik sartzea da gogorrena. Normalean beti izaten duzu beste surflariren bat alboan, baina tokatu zait hondartzan bakarrik egotea.

JGE: Nik ere momentuz ez dut etxekoan falta sentitu. Haietaz gogoratzen naiz, noski, baina Faduran kirolari gazte asko gaude eta ezin hobeto konpontzen gara. Lagun artean gaude eta uretan beti dut konpainia. Dena den, onartu behar dut, batzuetan Annette alboan eduki nahi izan dudala. Berarekin dibertigarriagoa da surfa. Entrenamenduak ez dira hain serioak.

Elkarrekin dibertitzen zarete, beraz. Eta xaxatu? Txapelketetan elkarren aurka aritzen zaretenean, futbol derbyetako lehiaren antza izango du zuen artekoak, ezta?

JGE: Annetek txapelketa batean irabazi didanean gozoak entzun ditut. Ez etxean bakarrik. Mundu guztia sartu da nirekin. Nik irabazi diodanean ezer gutxi esan diot.

AGE: Niri galtzeak ez dit hainbeste axola. Badakit Janire ni baino hobea dela eta normala da irabaztea. Bitan baino ez diot irabazi. Egin dudanean, hori bai, ondo gogorazi izan diot. Pena handiena ematen dit elkarren aurka final gutxi lehiatu izanak. Finalaren aurreko

kanporaketetan gurutzatu izan gara gehienbat, eta batak bestea kanporatu du.

Janire hobea dela diozu, Annette. Bistan da sekulako emaitzak lortu dituela. Itzal egiten dizula sentitzen duzu?

AGE: Sentitu izan dut, bai. Baina ez dit min handirik ematen. Esan dut ni ez naizela hain lehiakorra. Bera saiatuagoa da. Nik baino ordu gehiago eskaintzen dizkio surfari eta gehiago mugitzen da. Portugalen txapelketa bat baldin badago, nik birritan pentsatu behar dut joan aurretik. Janirek berehala esango du bera badoala. Niri ere surfa gustatzen zait, noski, baina ez Janireri bezainbeste.

Biok eskuratu dituzue oso emaitza onak eta asko hitz egiten da aurretik duzuen etorkizunaz. Hain gazte izanik, presiorik sorrarazten dizue horrek?

JGE: Nik oso garbi daukat surflari profesional izan nahi dudala, eta alde horretatik, gustatzen zait horrelako iruzkinak entzutea. Gauzak ondo egiten ari naizela, urrun iritsi naitekeela, eta, beraz, bide onetik noala esan nahi dute. Baina egia da, era beran, beldurra ematen digula gutaz espero dena ez betetzea. Porrot egin eta jendeari huts egitea. Bi alde horiek dituzte gure etorkizunari buruzko iruzkinek.

AGE: Nire kasuan, oraindik ez dut guztiz erabaki surflari profesionala izan nahi dudana. Ez dut bazterten, baina datozen urteetan eskuratzen ditudan emaitzen arabera erabakiko dut aurrera jarraitu ala ez. Dena den, horrek ez du esan nahi, presiorik sentitu ez dudunik. Lehian ari naizela neure buruari esan izan diot: 'Benga, kanporaketa hau gainditzen baduzu, hurrengo txapelketako rankinean sartu zara'. Horrek animatu baino gehiago, urduritu egin nau. Zorionez, presio hori ez da jasangaitza izan. Badago txapelketen aurretik lorik egin ezin duenik.

Porroterako beldurra aipatu duzue. Emaitza txarrak kateatzen hasteak eta babesleak galtzeak kezkatzen zaituzte?

JGE: Oraindik oso gazteak gara eta momentuz babesleek ez digute gehiegi exigitzen emaitzei dagokionez. Adinez nagusia zarenetik aurrera begiratzen diote horri. Orain, sare sozialetan aktiboak izatea eskatzen digute, batez ere. *Roxyk*, esaterako, Instagramen hilean 4 argitalpen egitea eta egunero *story* bat igotzea eskatzen dit niri.

Entrenamenduak, txapelketak, sare sozialak... gauza asko dira. Nola konpontzen zarete ikasketei eta lagunei behar adina denbora eskaintzeko?

AGE: Eskolari dagokionez, irakasleek gure egoera ulertzen dute eta asko laguntzen digute. Kanpoan



JANIRE: "PANDEMIAK EMAN DIT BAT BASQUE TEAMEN ESKAINTZA ONARTZEKO AZKEN BULTZADA"

ANNETTE: "JANIREREN ITZALA SENTITU IZAN DUT, BAINA BADAKIT NI BAINO HOBEA ETA SAIAUAGOA DELA"

JANIRE: "ESKOLAK GURE EGOERA ULERTZEN DU ETA ASKO LAGUNTZEN DIGU"

txapelketaren bat dugulako astebete huts egin behar dugunean, adibidez, etxeko lanak aurreratzen dizkigute eta klaseak moldatzen dituzte ezer galdu ez dezagun.

JGE: Niri ere ez zidaten inongo eragozpenik jarri Fadurara mugitu nintzenean. Klaseak online jarraitzen ditut eta azterketak egitera etortzen naiz Zumaiara. Ikasgairen batekin zalantzak ditudanean, Faduran bertan argitzen dizkidate hango lagunek. Beti daude laguntzeko prest. Gazteena naizenez, guztiek ikasi dute nik orain ikasi beharrekoa. Zumaiako lagunekin, berriz, azterketen aurretik eta ondoren, eta asteburuetan egoten naiz.

Amaitzeko, zer kendu eta zer eman dizue surfak?

JGE: Niri mundua eta pertsonak ezagutzeko aukera eman dit. Besteak beste, Australian eta Kalifornian izan naiz surfa egiten. Kendu, berriz, herriko lagunekin egoteko denbora eta festaz gozatzeko aukera.

AGE: Gabonetan familia guztia elkartzea ere galarazi izan digu bidaiaren bat egin behar genuelako, baina alde onak gehiago dira. Deskonektatzeko dudak tresna baliagarriena da surfa. Arazo pertsonalen bat dudanean edo azterketa garaian nagoenean, guztia ahazten dut, olatua hartu eta taula gainean altxatutakoan. ■■■

Gidarien gidaria

Izar Martin, autoeskolako irakaslea

“Non nengoke ni gidabaimena beste autoeskola batean atera banu?”. Hala laburbiltzen du Izar Martinek Zumaia autoeskolarekin gaur egun duen lotura estua. Izan ere, duela 26 urte zapaldu zuen lehenbizikoz leku hori Martinek, zetozen urteetan bere bizitzan izango zuen pisuaren susmo izpirik gabe.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karnele Gorroño**.

Bederatzi anai-arrebetatik gazteena da Martin. Gogoan du gurasoek harremana zutela herriko bi autoeskolekin, Zumaiarekin eta Garaterekin. Martinen aita igeltseroa zen ofizioz, eta hark egin zien obra Mila Soralzuzeri eta Juan Kruz Agirrezabalari Zumaia autoeskola erosi zutenean. Garate autoeskolaren nagusia ere ezagutzen zuten Martinen gurasoek, amaren kintako herriko gizon bat baitzen. “Gure gurasoek erabaki zuten, hainbeste anai-arreba izanik, negozioa autoeskola bakarrari egin beharrean, txandaka bidaliko gintuztela batera eta bestera”, azaldu du Martinek. Garatera joatea egokitu zitzaion Martini, baina Amaia ahizparen gomendioei jarraikiz, Zumaia autoeskolara joatea erabaki zuen: “Han ongi irakasten zutela esan zidan Amaiak, eta anai-arrebetan azkena nintzenez, kasu egin nion”.

Gidabaimena ateratzeko klase praktikoetan ezagutu zuen 2016an erretiroa hartu zuen Juan Kruz Agirrezabala irakaslea. “Kotxeko klase praktikoetan hitz egiten genuen. Garai hartako oroitzapen txarra dut, batez ere bigarren batxilergoarena. Gurasoekin erabaki nuen zerbait ikasten hasi beharrean lantxo bat bilatzea, denbora laboru baterako. Horixe komentatu nion Juan Kruzi. Esan zidan langile bat behar zutela, lanaldi erdirako. Urriaren 9an eskuratu nuen gidabaimena, goizeko hamaiketan; hiruretan

lanean nengoen autoeskolako bulegoan”, dio Martinek. “Karanbola izugarria” izan da, Martinen hitzetan, lan eskaintza hari baiezkua ematea.

“Txokantea” zen, Martinen arabera, hemezortzi urterekin lana autoeskolan egitea: “Ikasten zebilen jendea nire adinekoa edo zaharragoa zen. Galdetzen zidaten zer egiten nuen han”. Ordenagailuko lanak egin, testei fotokopiak atera... lan txiki horiek egiten hasi zen, baina libre samar zebilenean, Milaren ondoan jarri, eta testak nola zuzentzen zituen ikusten zuen. Jende gutxi zeukatenean, testak zuzentzen ere hasi zen Martin. Hiru hilabeteko kontratua beste hiru hilabete luzatu zioten, gero beste sei, eta bi urte igaro ondoren, lanpostu finkoa lortu zuen autoeskolan.

Bulegotik irakasle izatera

“Jende askok uste du Gorkaren [Agirrezabala, *Matxi*] bikotea naizelako nagoela hemen lanean”, ezeztatu du. Autoeskolako irakasle izateko titulua ateratzea zebilkion buruan Martinek bulegoko lanak egiten zituen garaian: “Hartara, barruan lan egin beharrean kanpoan ere egin ahal izango nuen”, dio Martinek.

Haren hitzetan, titulua ateratzeko izena ematen duten gehienek lehenago lotura dute ogibidearekin. Guztira, bi urteko ikasketa prozesua egin behar da, gutxienez, Bide Heziketako irakasle izateko gaitasun agiria eskuratzeko. “Lehenengo, sarrera proba bat



irrimarra



egiten da. Teorikoa gidabaimena ateratzea baino pixka bat zailagoa da, detaile gehiagorekin, baina lortzeko modukoa; hori gehienek gainditzen dute. Praktikoa, berriz, hiriburuan izaten da. Nik Donostian egin nuen”, argitu du. Proba hori gainditzen dutenek zazpi irakasgai gainditu behar izaten dituzte gero. Martinen arabera, pauso horretan erortzen da jende gehiena. Autoeskolan lan egitea abantaila zen harentzat; hala ere, Donostiako ikastaro batean eman zuten izena. Martinek azaldu du, azkenik, klase presentzialak jaso behar direla hamar astez. Behin bide heziketako oinarrizko ezagutzak barneratuta eta titulua eskuratuta, nola irakatsi gidatzen? Pazientzia oinarrizkoa da, Martinen arabera, beren lanbidean: “Gauza bera errepikatu behar izaten duzu hamabost aldiz, eta onartu behar duzu hala dela. Badakizu datorrenak ahalik eta ondoen egiten duela, eta bera dela gidabaimena ateratzeko interesa duena. Batzuk oso beldurtuta edo urduri etortzen dira, eta lasaitzen jakin behar da. Beste batzuk oso haizatuta, eta haiek aparretik jaisten jakin behar da”.

Klase praktikoetan industriagune batera eramaten ditu lehenbizi ikasleak: “Hasieran, guk manejatzen ditugu pedalak, eta bolantearekin eramaten uzten diegu”. Martinen hitzetan, “berehala” igartzen die trebetasuna edo baldartasuna. Horren arabera erabakitzen du industriagunean jarraitu edo errepidera jo: “Batuetan industriagunean ibiltzea bakarrik bada zerbait. Gainera, azalpenak emateko hobeto izaten da geratzea. Gidatzen ari denean hitz egiten baduzu, ikaslea kontzentratuta dago, eta igual ez du informazioa behar bezala jasotzen”.

Ametsetan ere gidatzen

Klase praktikoak ematen hasi zenean, noizbehinka, amesgaiztoek asaldatuta esnatzen

zen Martin: “Bazterra jotzen nuela amesten nuen. Lehenengo hilabeteetan urduri ibili nintzen. Zalantzak sortu zitzaizkidan. Buruz behera eta besoa luzatuta esnatzen nintzen, bolantea bilatzen mesanotxeari helduta”. Lagun bati eman zion bere amets gaiztoen berri, eta hark erantzun zion bere anaia behin ohetik erortzen ikusi zuela esku frenoaren bila.

Pixka bat lasaitu, eta Juan Kruzekin hitz egin zuten amets horien inguruan: “Barrez erantzun zidan, bere patxadarekin. Niretzat eredu bat izan da, irakasten hasi aurretik atzean jartzen nintzen berak nola irakasten zuen ikusteko. Transmititzen duen lasaitasun horrekin esan zidan lasai egoteko, denei gertatzen zaiela hori. Hori jakitearekin joan ziren nire amets gaiztoak”.

Azterketa eta aztertzaileak

Azterketa eguna izaten da okerrean Martinentzat: “Tentsioan zaude, ondo ateratzea nahi duzu; batzuetan hala izaten da, baina beste batzuetan ez. Ez bada kasu puntuala, zalantzan jartzen duzu zure lana. Hala ere, badakigu urduritasunaren mende ere badagoela emaitza. Ardura puntu bat

Izar Martin

- **Adina:** 43 urte.
- **Ikasketak:** Batxilergoa eta Bide Heziketako irakasle izateko gaitasun agiria.
- **Lanbidea:** autoeskolako irakaslea.
- **Irakaslea ez banintz...** Gidaria edo animaliekin zerikusia duen lanen bat.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Izotz txakurrarekin paseatzea, mendian edo hondartzan.

zurea da: azterketaria kalifikatzen dute, baina baita zuk harekin egin duzun lana ere”.

Azterketa praktikoeekin “etengabeko tira-biran” dabilta autoeskolak eta DGT, Espainiako Trafiko Zuzendaritza, Martinek azaldutakoaren arabera: “Gipuzkoan zortzi aztertzailer zeuden, eta lauk erretiroa hartu dute. Espainian, guztira, 150-200 behar dira. Eskumena Madrilena da, eta Eusko Jaurlaritzak eska dezan nahi dugu, uste dugulako hobeto kudeatuko litzatekeela. Espainiak ez du zerbitzu onik ematen”.

Aztertzailer soldata eta lan baldintzak Madrilek kudeatzen dituela azaldu du Martinek, eta, haren hitzetan, ez da gauza bera soldata horrekin Cuencan edo Donostian bizitzea. “Gipuzkoa aukeratzen dutenek bizi maila garestiagoa dute. Gainera, askotan, bi urte egon behar izaten dute, eta gero lekualdatzea eskatzen dute. Beraien probintzian hipoteka ordaintzen ari dira aztertzailer horiek, edo familia han utzi dute”, argitu du.


Hamabi lanegunetik behin jartzen dute orain azterketa praktikoa, baina aurkez daitekeen ikasleen kopurua mugatzen diete. Urte hasiera

“kaosa” izan da, Martinen arabera: “Aztertzailer iazko oporrak hartzeko zituzten artean, eta kopuru txikia utzi ziguten aurkezten. Jende askok uste du guk Trafiko Zuzendaritzarekin zerikusia dugula, baina gu ikasleen eta Trafiko Zuzendaritzaren arteko bitartekariak besterik ez gara”.

Tira-bira horiez gain, *Matxi*-rekin batera negozioa berea izateak kezkatzen du Martin. “Negozioa berea duen edonork ditu deskonektatzeko zailtasunak. Batzuetan burutik pasa izan zait autoeskola uztea lasaiago bizitzeko, baina idealizatu egiten ditugu beste lanbide batzuk. Niri hau gustatu egiten zait. Zeinek esaten dizu hobeto egongo zarela? Gainera, herrian bertan lan egitea ederra da. Biok [Agirrezabalak eta Martinek] negozio berean lan egiteak bere alde txarrak ditu, baina guk ondo daramagu”.

“Hemen segituko dut Trafiko Zuzendaritzaren aldetik gauzak ez badira asko okertzen. Ez dut esango egoera okerragoa ezin denik izan, esaten dudan bakoitzean erakusten dute eta baietz. Ez dakit bokazioa den, baina gustatzen zaigu. Asebetetzen nau”, amaitu du Martinek. ■

NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatututa aurkitu behar da, eta erantzuna *aldizkaria@baleike.eus* e-posta helbidera bidali apirilaren 19a baino lehen. **Saria:** Bittarte erretegiaren bi lagunentzat aste-buruko menua. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Ihantz Linazisoro
Baleikeko bazkidea da
Baleike pertsonaia aurkitu duena.

BITARTE
erretegia

ZUMAIAR

bat gehiago



**BATU BALEIKEREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41

Nola jarri mugak haurrei?



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Hitz egin izan dugu mugak jartzearen garrantziaz. Askotan zaila egiten zaigu haurrei prozesu honetan laguntzea, ez dakigulako non dagoen neurria. Guraso zorrotzegia naiz ala bigunegia?

Badakigu muga batzuk derrigor jarri behar ditugula, batez ere segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia dutenak, eta gero aukerakoak daude, familia bakoitzaren beharren arabera. Jartzeko moduen arabera, askotan bortizkeria erabiltzen da, edo aldiz, ez dugu argi adierazten.

Garrantzitsuena argiak eta zehatzak izatea da. Haurra txikia bada, edo egin behar duen ekintza berarentzat edo beste norbaitentzat arriskutsua bada, mugak oso argia eta zehatza izan behar du: GELDIRIK, NAHIKOA, EZ. Ozen esan, segurtasunez, baina beti lasaitasuna mantenduz; izan ere, eredia izango gara. Gero adinaren arabera, zergatia azaldu diezaiokegu, erraz eta era ulergarrian. Kontuan izan muga jartzen ari gatzaizkion haurra oso txikia bada eta iletik tiraka badugu, esploratzen besterik ez dela ari; baina, noski, ez diogu utziko, min

ematen badu, batez ere. Beraz, eskutxoak poliki gure iletik askatu eta EZ esango diogu. “EZ, horrek min ematen du, maittia.” Oso ohikoa da, horrelakoetan haurrak jarrera errepikatzea; beraz, guk ere, modu berdinean, mugatu egingo diogu berriro ere.

Haurrek instintuen arabera jokatzeko dute, eta instintua ezin da mugatu, bideratu baizik. Beti aukerak eman behar dizkiegu beraien instintuak ase ditzaten. Beraz, aurreko adibidearekin jarraituz, iletik tiratzeko behararen aurrean, soka bat edo zapi bat eskainiko diogu, sokatik tiratzea egokia delako, eta berak tiratzeko beharra duelako. Berdina egin dezakegu haurrak hozka egiten duenean. Beste pertsona bati hozka egitea ez da aukera bat, baina haur txikiek askotan hori egiteko beharra dute, amorrua azaltzeko modu bat dutelako. Noski, muga jarriko diogu: “EZ, horrek min ematen du”. Baina,




HAUREK INSTINTUEN ARABERA JOKATZEN DUTE, ETA INSTINTUA EZIN DA MUGATU, BIDERATU BAIZIK

jarraian, hozka egiteko sortua izan den objektu bat eskainiko diogu: panpina bat, elikagai bat, gomazko pilota bat... horrela bere beharra ase dezan.

Haurra EZ hitzaren esanahia pixkanaka ulertzen hasiko da, baina, gehienetan, beraien instintuak indar gehiago du; horregatik da garrantzitsua egin dezakeenaren aukera eskaintzea. Eta helduen doan heinean, ezetzaren aurrean, beste aukera batzuk aurkitzeko gaitasuna garatuko du eta aukera horiek praktikan jarriko ditu.

Orduan nola jarriko dizkiogu mugak haur bati?

1. Ez, hori ezin duzu egin.
2. Zergatia azaldu, labur. Hori ezin duzu egin mina ematen duzulako, edo zerbait edo norbait arriskuan jartzen duzulako.
3. Egin dezakeen aukera bat eman.
4. Bere frustrazioa lagundu. Egin ezin dezakeen hori egiten jarraitu nahi duenean, baina onartezina denean, bere sentimenduak baieztatu, nahiz eta jarrera ezin dugun onartu. “Hori egin nahi duzu, baina min ematen didazu, baina badakit asko gustatzen zaizula eta amorratuta zaudela. Ea beste zerbait aurkitzen dugun...”



Espezie Festa


Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak aberekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorerik gabeak atera zaizkio, ordea. Margotu itzazu zuk.



Itzalak


Lotu itzal bakoitzari bere izena.

Sudokua



Zein ederra den udaberria!

1 zebakiz seinalatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa, 2 zebakiz seinalatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




ZENBAT TXORI IKUSTEN DITUZU IRUDIAN?

Engainariak



Hamarrekoa

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Ordena itzazu botak handienetik (1) txikienera (6) eta ondoren

Handitik txikiara

- margotu. 1: urdin ilunez eta horiz.
- 2: laranja eta urdin argiz.
- 3: Berdez eta arrosaz.
- 4: morez eta grisez.
- 5: marroiez.
- 6: gorritz.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AITA MARI
Jatetxea

☎ 679 10 31 67
aitamarijatetxea@gmail.com
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



AIZPURUA
L
I
B
R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00




ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61



Amama
tel. 943-57 46 51
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Árdantzabide, 3 behea • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com


Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



ARDANTZABIDE
TABERNA

Ardantzabide, 12
943-57 22 47



OLAN DEGIA
Arkupel

Nausti, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injekzioa
Diesel injekzioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com



Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea
Taberna • Jatetxea
Bar • Restaurante



finés
francés
alemany
inglés
español
catalán
suomi
basco
castellano
francés
inglés
castellano
finés
inglés
suomi
catalán

bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza
Albaitaria
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadicriivet.com
www.basadicriivet.com

Goloz: 11-13 / Arratsaldez: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia
Larrikidietarako: 605 72 87 07 • Etkez ebeko zerbitzua

Bihotz gutxiegitasuna (III)



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Tratamendua eta zaintzak

Paziente batek gaixotasun itzulezina badu, ez badie medikamenduei eta tratamenduei erantzuten eta sintoma asko eragiten badizkio, eta, gainera, baldintza zehatz batzuk betetzen baditu, bihotz transplantea egiteko izangaia izan daiteke.

Batzuetan, gutxiegitasuna duen bihotzean, taupada markagailu mota bat jartzen zaie bihotz-taupadak “asinkronikoki” ari zaizkien pazienteei, eta, horren bidez, taupadak berrantolatzea lor daiteke, eta, horrela, gaixo horietako batzuen nekea arindu edo arritmia larrien arriskua murriztu. Izan ere, arritmia horiek antzemateko eta gelditzeko deskarga elektrikoa emateko gai da; horiek desfibriladore ezarriak dira

Jarraitu beharreko aholkuak:

- Ez erre.
- Alkoholaren kontsumoa: Ez zenuke alkoholik hartu behar.
- Tentsio arterialaren kontrola: tentsio arterial sistoliko “altu”-aren balioek 140 mmHg-tik beherakoak izan behar dute kontsultan edo 130-135 mmHg-koak etxean.
- Pisua kontrolatzea. Egunero pisatu behar duzu, arroparik gabe, goizetan, altxatzerakoan eta txiza egin ondoren.
- Orientazio modura, bihotz gutxiegitasuna duten

emakumeei egunean 1 litro edatea gomendatzen zaie eta gizonei litro eta erdi inguru.

- Ikasi gorputzean sartzen ari zaren likido kopurua kalkulatzeko; izan ere, fruta, zopa, esnea eta abar ere kontuan hartu behar dituzu.
- Mugatu bizigarrien kopurua, esaterako kafeina (kafeak, kola edariak) edo teinak (teak).
- Badira osagarrien artean kafeina daramaten gripearen kontrako botikak; ez dira, beraz, bihotz gutxiegitasuna duten pertsonentzat normalean hartzekoak.
- Ariketa fisikoa: komeni da oxigenoaren kontsumoa eskatzen duen ariketa fisikoa egitea (aerobikoa) eta intentsitate moderatukoa izatea (igeri egitea, oinez egitea, bizikletan ibiltzea) gutxienez egunean 20-30 minutuz, astean 5-6 egunez. Ez da egin behar jan eta hurrengo bi orduetan edo muturreko tenperaturak daudenean.
- Likido erretentzioa saihestea: dietak gatz gutxi izan behar du. Prestatu jatekoa gatzik gabe eta erabili beste bizigarri batzuk, esaterako, berakatza, perrexila, ozpina, limoia eta belar aromatikoak. Ez hartu gatz asko duten elikagaiak, esaterako: hestekiak, saltsak, kontserbak, aurretiaz prestatutako elikagaiak, gaztak, janurrekoak, botilatutako edariak, esne hautsak eta esne kondentsatua.

- Tratamendu farmakologikoa betetzea.
- Ez hartu zure kabuz farmako antiinflamatoriorik (besteak beste ibuprofeno, diclofenaco, dexketoprofeno, etab.) likido erretentzioan lagundu dezakete; hori dela eta, hobeto erabiltzen ez badituzu. Mina arintzeko medikamenturik hartu behar baduzu, paracetamola har dezakezu.
- Saihestu estresa eta lo egin edo atsedean hartu gutxienez 8 ordu. Ez hartu afari astunik Saiatu erlaxatuta egoteko eta gogoko duzun jarduera bat egiteko tartea izaten.
- Sexu jarduera: kontsultatu medikuari. Oro har, arazo gabe egin ahalko duzu, eskailera tarte bi nekerik eragin gabe igotzeko gai bazara.
- Gidatzea: debekatuta dago gidatzea, geldirik zaudela edo eguneroko jarduerekin itolarria nabaritzen baduzu.
- Hegazkinean bidaiatzeak ez du arazorik eragiten, bihotz gutxiegitasun kontrolatua duten pertsonengan. Ez da komeni hegazkinean bidaiatzea geldirik zaudenean edo eguneroko jarduerekin itolarria nabaritzen baduzu edo lotutako biriketako hipertentsiodun bihotz gutxiegitasuna baduzu.
- Txertoak: urtero hartu behar du zenuke gripearen aurkako txertoa. Gomendagarria da, halaber, pneumokozikoaren aurkako txertoa hartzea. ■■■

PUBLIZITATEA



BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98
asadarbasusta@hotmail.com



Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ELECTRIFICADORA, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**



ERNIO
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Entz
Informatika

ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK

Behoko plaza 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garaa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70



Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Irlanda optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaia tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako soinua
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60



Etorkizuneko energia III: Zumaiaren aukerak

Zumaiako energia jardunaldietan parte hartu duten adituei esker aukera izan dugu gure herriak dauzkan mugak, aukerak eta proposamenak hobeto ezagutzeko. Saio haietan entzundakoa jaso dugu orrialde hauetan.

Testua: **Gorka Zabaleta.**

Zumaiako kontsumo energetikoaren balizko hiru egoeretako kontsumo mailak eta kontsumoaren murrizketak. ZUMAIAKO

ENERGIA ESTRATEGIA 2020

Mundu mailako erronka *Baleike* aldizkariko aurreko bi zenbakietan ezin hobeto azaldu zuen Markel Peñalbak zein diren energiaren gaian mundu mailan dauden erronka nagusiak eta zabaldu diren aukera berriak. Erregai fosilen gehiegizko erabilerak klima aldaketa eragin du, eta, nahitaez, berotegi efektua sortzen duten gasak isurtzeari utzi behar diogu ez badugu gure ondorengoen etorkizuna erabat zapuztu nahi.

Erronka ikaragarria da, energia sortzeko eredia urte gutxiren buruan eta mundu osoan aldatu behar baita helburua lortzeko. Eta soilik energia iturria aldatuta ez da nahikoa izango. Energia berriztagarriak behar ditugu, bai; baina, horrez gain, kontsumoa murriztu behar dugu eta efizientzian hobekuntzak lortu.

Gainera, gutako bakoitzak energiarekin daukagun harremana aldatu behar dugu, kontzientzia berri bat sortu. Orain arte herritarrok itxita izan ditugu energian ahalduntzeko bideak, energiaren estrategiak erabakigune handietan hartzen direlako eta botere handia duten oligopolioen menpe dagoelako. Baina Europatik etorri diren lege berriein hasi dira zirrikituak zabaltzen, eta, aurrerantzean, behar dugun energiaren zati bat, behintzat, herri mailako instalazioekin hornitzeko modua izango da. Baina mundu mailako erronka horren aurrean, zer egin dezakegu Zumaian?

Energia asko kontsumitzen dugu

Aitor Ossa Rissanen energia adituak Zumaiako Udalarentzat egin duen diagnosis ondo zehaztuta datoz

Udalerrian kontsumitutako energia mota	2018		2030				
	Kontsumoa (GWh)	Aldaketarik gabe		Hobekuntza partzialak		Optimoa	
		Kontsumoa (GWh)	Mur. (%)	Kontsumoa (GWh)	Mur. (%)	Kontsumoa (GWh)	Mur. (%)
Energia elektrikoa	81,78	81,78	0	81,78	0	100	-22
Energia termikoa	199,26	199,26	0	99,63	50	39,85	80
Energia guztia	281,04	281,04	0	181,41	35	139,85	50

Zumaiako energia kontsumoa (GWh)	Elektrizitatea	Gas naturala	Petroliotik eratorriak	Ikatza eta deribatuak	GUZTIRA
Etxebizitzak	11,53	11,91	2,08	-	25,52
Industria	55,22	19,59	9,28	1,83	85,92
Zerbitzuak	15,02	36,97	3,87	-	55,86
Garraioa	-	-	111,68	-	111,68
Besteak	0,01	-	2,05	-	2,06
GUZTIRA	81,78	68,47	128,96	1,83	281,04

Zumaiako energia kontsumoaren banaketa, iturriaren eta sektorearen arabera. ZUMAIAKO ENERGIA ESTRATEGIA 2020

Zumaiako energia kontsumoaren kopuruak. Energia gehien garraiorako erabiltzen dugu, eta ondoren datoz industria, zerbitzuak eta etxebizitzak. Guztira, urtean, 281,04 GWh behar ditugu zumaiarrok gure bizimodua aurrera ateratzeko. Batez ere petroliotik eratorritako erregaiak erabiltzen ditugu (% 46), zerrendan hurrengoa

elektrizitatea (% 29) da eta hirugarren iturria gas naturala (% 24). Kontsumo horren ondorioz, besteak beste, zumaiar bakoitzak 6,7 tona CO₂ isurtzen ditugu atmosferara. Eta hori asko da: 4,9 tona da munduko batezbestekoa; 6 tona Espainiakoa. Kontuan hartzen badugu 2050erako klimarekiko neutrala izateko helburua jarri duela Europak, lan handia daukagu aurretik eta denboraz ez gabiltza sobran.

Potentzial energetikoa Zumaian

Zumaiarron gaur egungo energia kontsumoaren erradiografia egiteaz gain, energia iturri berriztagarrien alternatiba posibleak ere aztertu ditu Ossak (*Zumaiako Energia Estrategia 2020*, kontsultagai daukazue zumai.a.eus webgunean). Bereziki eguzki energian eta haize energian zentratu du bere ikerketa, beste batzuk baztertu gabe.

Eguzki energiari dagokionez, herriko udal eraikinen, lantegien eta etxebizitzaren teilatuen azalera hartu ditu kontuan potentzial energetikoa kalkulatzeko. Gure herriko teilatuak eguzki plakez hornituko bagenitu, urtean 17,8 GWh-eko energia lortzeko potentziala genuke gaur egun. Haize energiari dagokionez, berriz, herrian dauden haize toki onenak identifikatu ditu eta zenbait ariketa egin ditu haize energiaren potentziala kalkulatzeko. Aipatutako 13 kokalekuetan haize sorgailu bana jarrita 3,8 GWh ekoiztuko lirateke. Baina egileak berak ez du ezkututzen ariketa teoriko hutsa dela, haize leku horietako asko legez babestuta daudelako. Bestalde, herriko leku gehiagotan haize sorgailu txikiagoak jartzeko aukera ere aipatzen du. Edozein modutan, eguzki energiaren aprobezamenaren potentziala urrun gelditzen da haize energia gaur-gaurkoz.

Alderatzen baditugu gaur egungo energia kontsumoa eta planteatzen diren iturri berriztagarrien potentzialak, hauxe da emaitza zenbakietan: Zumaian kontsumitzen ditugun 281 GWh horietatik 81 dira energia elektrikoa gaur egun; iturri berriztagarrietatik 20 bat GWh lortu baditzakegu, horrek esan nahi du gaur egungo kontsumo elektrikoaren % 25 ordezkatu dezakegula herriko teilatuetan eguzki plakek jarrita eta haize lekuetan haize sorgailuak jarrita. Petrolio, gasa eta beste energia iturri guztiak aintzat hartzen baditugu, kontsumitzen dugun energia guztiaren % 7,3 litzateke herrian ekoiztutako energia berriztagarria.

Nahikoa al da?

Iturri berriztagarriekin soilik gaur egungo beharrak asetzetik urrun gelditzen garela ikusita, etsipena izan daiteke lehen erreakzioa.

Baina ariketak balio behar du arazoaren tamainaz jabetzeko. Erantzunak sakonagoa izan behar du derrigor, ez da nahikoa energia iturriak aldatuta. Estrategia oso bat behar da kontsumoa murrizteko eta efizientzia hobetzeko. Ossak 25 neurri zehatz proposatzen ditu txostenean, energia kontsumoa murrizteko, energia jasangarriagoa kontsumitzeko eta eredu energetiko berria herritarrekin lantzeko. Zerrenda luzea da, baina neurri batzuk apatzearren: eraikinen efizientzia energetikoa hobetu, ibilgailuen elektrifikazioa bultzatu, digitalizazioaren bidez energiaren kontsumoa optimizatu, eguzki panelak instalatu, herritarren parte hartzea eta energia komunitateak sustatu...

Energia kontsumoa murrizteko eta efizientzia hobetzeko neurriek zer garrantzi duten azpimarratzeko ariketa ere egin du Ossak. Proposatutako neurriak indarrean jarri edo ez, asko alda daiteke emaitza: neurri guztiak aplikatuz gero, Zumaiaren energia kontsumoa erdira jaitsi daiteke, 281 GWh-tik 139 GWh-ra. Kasu horretan, Zumaiaren kontsumitutako energiaren % 14,7 litzateke herrian bertan ekoiztutako energia berriztagarria.

Hala ere motz gelditzen dela pentsa daiteke, baina kontsumoa murrizteko eta efizientzia hobetzeko neurri guztiak aplikatuko bagenu, aldaketa esanguratsu bat lortuko genuke: energia termikoekiko (petrolioa, gasa...) menpekotasuna ikaragarri murriztea (199 GWh-tik 39 GWh-ra), eta horrela berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa nabarmen jaitea (% 87 gutxiago). Urtean, zumaian bakoitzak CO2 tona bat baino gutxiago isuriko genuke. Gogoan daukazue gaur egun zenbat isurtzen dugun? Noski, emaitza horiek lortzeko, herrian kontsumituko dugun energia elektriko guztia (herrian sortutakoa zein kanpotik ekarritakoa) iturri berriztagarriekin ekoiztua izan beharko litzateke.

Herritarren ahalduntzea: Garesko esperientzia

Europatik etorri diren lege aldaketei esker orain errazagoa da eskala txikiko instalazioak eraikitzea tokian tokiko beharrei erantzuteko. Jabetzari dagokionez ere, orain aukera gehiago daude, esate baterako, herritarren kooperatibak sortzeko. Eredu deszentralizatuago bat posible da, beraz, eta zenbait herritan hasi dira pixkanaka bide hori jorratzen; esate baterako, Garesen (Nafarroa). Herritarrekin martxan jarri duten ekimenaren berri eman zuten Oihan Mendo alkateak eta Txetxu Ezkurra Talde Eragileko kideak Zumaiako jardunaldietan.

Garesko esperientzian erabateko protagonismoa eman diete herritarrei. Herritarrek hartu dute Gares Energia ekimenaren lidergoa, haien iritziz, eraldaketa sozialik gabe ezinezkoa delako benetako trantsizio energetikoa. “Gure proiektuak

Udalerrian kontsumitutako energia mota	2018		2030				
	Isuriak (tona CO ₂)	Aldaketarik gabe		Hobekuntza partzialak		Optimoa	
		Isuriak (tona CO ₂)	Mur. (%)	Isuriak (tona CO ₂)	Mur. (%)	Isuriak (tona CO ₂)	Mur. (%)
Energia elektrikoa	22.081	22.081	0	21.471	3	0	100
Energia termikoa	45.653	45.653	0	22.827	50	9.131	80
Energia guztia	67.734	67.734	0	44.297	35	9.131	87

Zumaiako kontsumo energetikoaren balizko hiru egoeretako isuri mailak eta haien murrizketak. ZUMAIAKO ENERGIA

ESTRATEGIA 2020

Garesko frontoia.





helburu sozialak jartzen ditu helburu ekonomikoen gainera. Gizartea ahaldu nahi dugu, burujabe izan nahi dugu erabakiak hartzeko orduan. Trantsizio energetikoan ingurumena eta gizakia, biak dira ardatz”, laburtu zuen Mendo alkateak Garesko ekimenaren filosofia. Horrela, herritarrek erabakitzen dituzte proiektuak eta Udalak babes ekonomikoa eta aholkularitza eskaintzen die. Orain arte, frontoiko teilatuan jarri dituzte eguzki plakak eta aspalditik utzita dagoen zentral hidroelektriko bat berreskuratzeko plana daukaten mahai gainean. “Herritarrez osatutako komunitate energetiko bat sortzea da gure plana”, azaldu zuen Txetxu Ezkurak.

Ekiola proposamena

Jardunaldietako azken saioan proposamen zehatz baten berri izan genuen: Zumaian 400 bat familiaren argindar kontsumoa aseko duen eguzki plaken instalazio bat jartzea, zeinaren jabeak herritarrak beraiek izango diren, irabazi asmorik gabeko kooperatiba batean egituratuta. Ekiola da proiektuaren izena, Mondragon taldeko Krea kooperatibak landu du, Energiaren

Euskal Erakundearekin batera, eta Udaltzatuko talde guztien babesa du. Megawatt bateko potentzia duen azpiegitura bat beharko da, eta 1,2 hektareako azalera hartuko duen lur gabeko azpiegitura bat aurreikusi dute eguzki plakak instalatzeko.

Urte gutxiren buruan ahalik eta herri gehienetan horrelako azpiegiturak martxan jartzea dute helburu (Azpeitiak onartu du dagoeneko). 2030erako, etxebizitzetako argindar behararen herena asetzerara iritsi nahi dute. “Ekiola herritarrentzat pentsatutako erreminta bat da, tokian tokiko beharrei erantzuteko. Herri bakoitzak behar duen energia asetzeko tresna bat da”, azaldu zuten Krea ordezkariek Elene Santamariak eta Hodei Arzakek.

Udalak oniritzia emanez gero, Krea eta EEE arduratuko dira proiektua sustatzeko beharrezkoak diren urrats guztiez: lanketa teknikoaz, baimenez, proiektuaren diseinuaz... Behin fase hori gaituta eta Zumaian proiektua bideragarria dela bermatuta, herritarren txanda iritsiko da. “Herritarrez osatutako irabazi asmorik gabeko kooperatiba izango da azpiegituraren jabea; helburua da bazkide egiten diren herritar horien energia beharri erantzuteko adina argindar sortzea, ez gehiago”. Herritarrekin batera, kooperatibako parte izango dira Udala, EEE eta Krea, “kooperatiba ondo kudeatzen dela bermatzeko, baina gehiengo herritarrek izango dute”.

Instalazioa bideragarri izateko, 400 bat bazkide beharko direla kalkulatu dute. Herritarrez gain, herriko merkataritza eta ostalaritza ere izan daiteke proiektuko bazkide; eta Udalak berak ere har dezake zati bat bere erabilerarako, esate baterako, argindarra ordaintzeko baliabiderik ez dutenei zerbitzua

bermatzeko. Bazkide bakoitzari kalkulatuko zaio zein den bere kontsumoa, eta horri erantzuteko behar diren eguzki plakak esleituko zaizkio, ez gehiago. “Hemen ez dago diru irabazirik; bazkideek dirua aurreztu egingo dute, baina irabaziak sortzen badira proiektu berriak sustatzeko erabiliko da”, azaldu dute.

Bazkide bakoitzak egin beharreko inbertsioaz, oraindik ez dago kalkulu zehatzik. Dena den, familiako 2.000 euro ingurukoa izan daitekeela aurreratu dute, baina kopurua nabarmen murrizteko lanean ari omen dira. “Europako dirulaguntzetara aurkeztu dugu proiektua, eta Aldundiekin ere elkarlanean ari gara abantailak lortzeko. Finantziazioa lortzen badugu, 500-800 euro ingurukoa izan daiteke familia bakoitzak egin beharreko inbertsioa”. Azpiegiturak 25 urteko bizitza izango du ziurtatuta (mantentzeaz arduratuko da Krea bera), eta argindarra ekoiztea kostatzen den prezioan ordainduko dute bazkideek. “Etorkizunean argindarraren prezioaren bilakaera zein izango den ez dago asmatzerik, baina gaur egun 47 euroren bueltan badago merkatuan, Ekiolan 20-25 eurotan sor dezakegula kalkulatu dugu”.

1,2 hektareako azpiegitura hau non jarriko litzatekeen oraindik ez dute erabaki. Lur publiko zein pribatuak aztertzen ari dira. “Baldintza jakin batzuk bete behar ditu lekuak: laua izan behar du, bertara kotxez iristeko aukerarekin, eta argindar saretik gertu, konexioa erraz egiteko”.

Eguzki plakek sortuko duten argindarra sare orokorraren bidez iritsiko litzateke bazkideen etxeetara. Horrek, legez, ezinbestean eskatzen du argindarra komertzializatuko duen enpresa bat. Hasiera batean, bitartekari lan hori egiteko Ekiolak berak izango du bere enpresa. “Merkatuan dauden saltzaileekin harremanak izan ditugu eta, gaur-gaurkoz, oso zaila da bat egitea gure planteamenduarekin; horregatik, proiektuak ondo funtzionatuko duela ziurtatzeko, erabaki dugu Ekiolak berak sortzea bere bitartekaria. Aurrerago, kooperatibak berak erabaki dezake beste enpresa batekin adostea argindarraren salerosketa”.

Martxan jartzeko momentua da

Energia sortzeko eta kontsumitzeko ereduan aldaketa sakonak behar ditugula gutxi jartzen dute zalantzan. Gai konplexua da, ordea, ertz asko dituen, eta aldaketa hori nola egin, hor ager daitezke zailtasunak eta eztabaidak. Baina errepaso honetan ikusi dugun bezala, dena beharko da helburura iristeko, bide guztiek izan behar dute elkarren osagarri. Ekiola proiektua lagungarri izan daiteke epe laburrean lehen urratsak egiteko, baina helmugara gerturatu nahi badugu, ezinbestekoa izango da herritarrak hezte, kontsumoa murrizteko neurriak hartzea eta energia berriztagarria sortzeko aukera guztiak baliatzea. ■■■



**EGUZKI PLAKEN
INSTALAZIOA
JARTZEKO
PROPOSAMENA EGIN
ZUTEN AZKEN SAIOAN**

**INSTALAZIOA
BIDERAGARRI IZATEKO
400 BAT BAZKIDE
BEHARKO DIRELA
KALKULATU DUTE**

PUBLIZITATEA

ORRAZTEGI ZUMAI A

943-86 20 83

JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

KABI Patxita Elkezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

KALARI

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR

ZUMAI A

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL

estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAI A
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.

TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

OSA BERNIZATUAK

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAI A, S.L.

Joxe Mari Kortza Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com


Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Haiek bai estropadak!



TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

2020ko abenduan Xabier anaiak enbidoa bota zidan baleike.eus-en, estropada gogoangarri baten 130 urteurrena zela-eta, ea animatuko nintzen hemen haren gaineko zerbait idaztera. Muszalea naiz, baina are zalegoa istorio eder eta epiko haiena: XIX. mendearen amaieran, garai ilunagoak atzean utzi nahian, bi herritako arrantzaleen arteko estropada soil bat nola bihurtu zen izugarritzko ikuskizuna, prentsak ia lehertzeraino puztutako globoa, nork irabaziko baina zerbait gehiago jokoan. Estropada ondarroarrek eta donostiarrek jokatu zuten, baina amaiera (kasualitatea!) Zumaiaren parean izan zen, eta garai hartan, gainera, Zumaian ere baziren estropadak.

1890eko estropada hura

1875ean Gerra Karlista amaitzearekin batera, amets batzuk itzali eta itxaropen berri batzuk piztu ziren; aurrerabidearen trenea martxan zetorren, bizimoduaren aldaketa handiak sumatzen ziren, eta horien guztien berri emateko indarra hartzen hasi ziren egunkariak. Udako festen aitzakian, estropadak antolatzen hasi ziren kostaldeko herrietan, eta garrantzitsuenak Bilbokoak eta Donostiakoak ziren; hain zuzen

ere, 1890eko Bilboko estropada ondarroarrek irabazi zuten, eta Donostiakoa donostiarrek, baina elkarren aurka aritu gabe. Ondarroarrei “Kantauriko menderaezinak” titulua eman zieten, eta Donostiako Kofradiakoek hori ez zuten begi onez ikusi, beraiek ere zerbait bazirelakoan. Horregatik, desafioa bota zieten Ondarroako Kofradiakoei, baita haiek onartu ere.

Kostatu zitzaizen, kostatu zitzaenez, baldintzetan ados jartzea, bi aldeak mesfidati zeudelako, lehiakideari abantaila emateko beldurrez. Gorabehera eta negoziazio asko izan ziren, eta egunkariak (*La Voz de Guipúzcoa, El Noticiero Bilbaíno, El Porvenir Vascongado...*) han zeuden xehetasun guztiak “iritzi publikoari” kontatzeko, estropada hartan jokoan askoz gehiago balego bezala. Alde bakoitzak 25.000 pezeta jokatu zituen (dirutza garai hartan), eta beste herritar askok ere egin zituzten apustuak (prentsaren arabera, 250.000 pezeta baino gehiago egon ziren jokoan); diruaz gain, bestelakoak ere jokatu zituzten: aziendak, etxeak, oheak, kamisetak..., batzuek zeuzkaten ondasunik onenak. Azkenean, bi aldeek baldintza hauek adostu zituzten estropadarako: azaroaren 23an jokatzera, arrantzarako erabiltzen zituzten traineruekin, 14 laguneko

tripulazioekin, Lekeitiotik Getaria aldera 10 miliako ibilbidean.

Baina nolakoa zen orduko gure Zumaia, 1890ean? Oso desberdina. 2.000 lagun inguru bizi ziren, eta Aizarnazabal banandu berria zen; portua zen jarduera ekonomikoaren motorra, eta itsasontziak zebiltzan etengabe atzera-aurrera, batzuk beladunak, beste batzuk lurrun makinek eraginda; zumaiar asko, gainera, ogibidea itsasoan zeukaten, merkataritzan eta arrantzan, eta bazeuden traineruan irten eta eguneko arrantza egiten zuten zumaiarrak. Kostako errepidea egin berria zen, baita Zubiaundia ere, baina artean ez zebilen trenik, eta basadietan baratzeak baino ez zeuden; itsasontzia zen ohiko garraio-bidea distantzia luzeetarako eta zumaiar asko inoiz ez ziren irten herritik.

Estropadarako data gerturatu ahala, giroa berotzen joan zen, eta prentsak kontatu zuen guztia: herritar asko joaten ziren moilara, arraunlarien entrenamenduak ikustera; apustuak gero eta gehiago ziren, eta bazirudien nahitaez zerbait jokatu beharra zegoela; borrokak ere izan ziren, zaleen artean...

Azkenean, apustua azaroaren 30erako jarri zuten. Garai hartan ez zegoen autobusik edo

kamioirik, eta traineruak itsasontziz eraman zituzten, atoian, Donostiatik Lekeitiora. Estropadara ikusi nahi zutenentzat, garraio bide bereziak jarri zituzten (diligentziak, baporeak...), eta *La Voz de Guipúzcoa*ko bidali bereziak zioenez, Zumaiara ere jendetza etorri zen: ikusle ugari zeuden Santa Klara, San Telmo eta Talaimendi aldean; izugarritzko hotza egiten zuen (abenduaren 1ean zortzi gradu zero azpitik!), mendiak elurtuta zeuden eta ikusleak elurrarekin jolasean ere ibili ziren, elkarri bolak botatzen, berotze aldera.

Beraz, abenduaren 30ean, igandean, estropada hastekoa zen, baina atzeratu egin behar izan zuten, haizeagatik eta itsaso zakarrarengatik, eta azkenean asteartean (abenduaren 2an) egin zuten, astegun buruzurian, eguerdian. Manuel Beobide apaizak katalejo handia jarri zuen Santa Klaran, estropada jarraitzeko eta ingurukoei kontatzeko, eta hari esker jakin zuen kazetariak nola zihoan estropada. Hasieran pare-parean, baina gero donostiarrak aurreratu egin ziren, eta abantailari eutsi zioten amaiera arte; guztira, 81 minutu behar izan zituzten, eta ondarroarrek 1' 28" gehiago.

Estropadaren ondoren, batzuen poza besteen pena, eta donostiarrak gustura, ondarroarrei irabazteagatik ez ezik, Bilbo aldean harro-harro



Luis Carrilen taldea. TORNOZULOTIK




Estropadaren ondoren ateratako kartela. EUSKAL ITSAS MUSEOA



ibili zirenei ipurdiko galanta eman zietelako ere bai. Ordura arte hain sutsu aritu zen prentsa, berriz, baretu eta horrelako apustuen aurka azaldu zen: ezinegona sortzen zutela, hondamendia zekartela..., denok ginela anai-arrebak, denok euskaldunak... 130 urte geroago, Sevillako futboleko Kopako finala gogoan, esango nuke berdin edo antzera jarraitzen dugula.

Estropadaren eremua

Bi aldeek adostu zuten estropada Lekeitiotik ekialdera jokatzeko, 10 miliako distantzian, Lekeitio San Nikolas uhartearen paretik irtenda ekialdera, Getariako San Anton mendia erreferentziazat hartuta, baina ez zen han bukatu¹. Hau da, hain zuzen ere, 1890-11-29an *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian agertu zen krokisa. Marrazkiaren arabera, "7. Punta de Piedra



La Voz de Guipúzcoa argitaratutako krokisa, 1890-11-29an.



Blanca” (Aitzuri) eta Zumaia artean amaitu zen estropada, “8. Punta de Piedra” jartzen duen lekuren parean.

Orduan ez zeuzkaten gaur egun dauzkagun baliabideak, eta erronka bota diot Gonzalo Torre lagunari, baita hark onartu ere: zehatz-mehatz zer paretan amaitu zen kalkulatzeara.

eta puntu horretatik kostaldera lerro perpendikularra marraztuz gero, Baratzarrak/ Palankamugarri parean lehorreratuko ginatke, hau da, Debaren eta Zumaiaren arteko mugan.

Eta gurean?

Kostaldeko beste herrietan bezala, gurean ere estropadak

egiten ziren, eta erreferentzia ugari daude Zumaiako Artxiboko paperetan, batez ere XIX. mendearen amaieratik aurrera eta ia beti udareekin eta festa giroarekin edo kanpotarren etorrerarekin erlazionatuta; izan ere, sarritan, udatiarren aitzakian antolatzen ziren, haiei ikuskizuna eman edo haiek entretenitu nahian.

Udaleko dokumentazioa begiratuta, bada, adibidez, 1865eko abuztuko agiri bat; bertan, donostiarrek gonbidatu egin zituzten zumaiarrak estropadan parte hartzera, errege-erreginak han izango zirela eta; zumaiarrak prest zeuden joateko, baina baldintza batekin: “no habrá inconveniente en que se presente la lancha trañera de este puerto en aquella concha el día señalado para los festejos de la próxima venida de S.S.M.M. y Real familia, siempre que no se presente a la regata alguna o algunas lanchas de construcción y forma de las que hay en Fuenterrabía, sino que comúnmente se conozcan con el nombre de trañeras en esta costa”². Garai hartatik aurrera, eta gero eta kanpotar gehiago etortzearekin batera, uda



Zumaiako trainerua, 1920ko hamarkadan. ARANTZA AIZPURUA ZINKUNEGIK UTZIA

garaian (sarritan Jasokunde edo Asuntzio Egunean) urtero egiten ziren estropadak erriotan; hauxe adibide ugarietako bat: “Acuerdan que aprovechando la buena marea de la tarde del Domingo próximo día veinticuatro del corriente se verifiquen en la ría de este puerto, las regatas y otros festejos de costumbre para entretenimiento y solaz de la colonia veraniega”³; estropadekin batera, bestelako jolasak ere izaten ziren: kukañak, usoak libratzea, ahateak harrapatzea... Baina trainerua, lehen, batez ere lanerako baliabidea zen, eta ez jolaserako edo kirolerako tresna, eta horren adibideak badaude udal-dokumentazioan: 1896an, Evaristo Gomezek terrenoa eskatu zuen Ondartxon, estalpea egin eta arrantzako trainerua eta trasteak gordetzeko; 1899an, berriz, arrantzaleek Probintziari baimena eskatu zioten traineruetan fusilak eramateko, izurdeen atzetik joan eta haiek tirokatzeko, antxoa eta sardina uxatzen zizkietelako.

Arrantzaleen Kofradiaren ekimenez eta Udalaren babesarekin, gazte kuadrilla bat

urtero prestatzen zen Bilboko eta Donostiako estropadetarako; adibidez, 1895ean, Kofradiak adierazi zion Udalari gazte talde bat prestatzen ari zela, entrenamenduek gastuak eragiten zizkietela eta laguntzeko, beti egin izan zuelako horrela, eta Udalak baietz erantzun zien. Beste hau, berriz, 1920koa: “De un escrito de D. Cosme Iraundegui, quien en nombre y representación de la tripulación ‘Zumayarra’, solicita, que la Corporación subvencione con alguna cantidad a los remeros que actualmente están entrenándose para acudir a las regatas que se celebrarán en Bilbao y San Sebastián”⁴. Baina Udalak ez zuen beti laguntzen: “De la instancia suscripta por D. Vicente Gómez, vecino de esta villa, patrón de la trainera ‘Jel’ de la misma (...) expone; que han decidido formar un equipo de remeros ‘zumayanos’, a fin de tomar parte con dicha lancha en las regatas de traineras anunciadas para el próximo mes de Septiembre en San Sebastián”⁵; Udalak galdetu zuen ea Kofradiaren ekimena zen, eta partikularra zenez (eta

Bibliografía

- MACÍAS, Olga: “Donostiarras y ondarreses: el gran reto de traineras de 1890”, *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 4, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2003, 629-637. orrialdeak.
- *La Voz de Guipúzcoa* egunkaria.

nazionalistei lotua, seguru asko, ontziaren izena irakurrita), ez zien eman laguntzarik. Azken zita hau, berriz, 1932koa da: Kofradiak adierazi zion Udalari herriko gazteak entrenatzen ari zirela estropadetarako, dirulaguntza eskatu zuen, baita Udalak gustura esan ere, 250 pezeta, “teniendo en cuenta que se encuentran unidos todos los remeros zumayanos, sin las rivalidades que separaban a los del casco y a los de los Barrios de Oikina y Artadi”⁶. Egokiera sortuta, nahitaez aipatu behar 1930ean oikiarrek Zarautzen irabazitako bandera *mitikoa*, zumaiarren aurretik, eta Kontxan ere aritu zirela gero, irailan. ■■■

¹ Oharra: zenbait iturritan (Añamendi entziklopedian, Wikipedian...), Getarian amaitu zela dago jasota, baina ez da zuzena.

² Zumaiako Udal Artxiboa, 73.01 (26), 1865-07-23an.

³ ZUA, 2834 (285), 1910-08-18an.

⁴ ZUA, 2843 (146V), 1920-08-05ean.

⁵ ZUA, 2844 (89V), 1922-08-31n.

⁶ ZUA, 2850 (45), 1932-09-02an.

PUBLIZITATEA



SOLOZABAI
autoeskolak

Etkezaretara, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritates - Naturopatia

www.sura.eus

Sura
ZAINTEA
DINARRIAH

Patxita Etkezaretara 17 - 688 71 85 38

Talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondeak (kodilloa)
Saltxitrak, oilaskoak...
Garagardoak-oukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xantia
ALTZARIAK

Amaiaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

45+



**UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA**

**45 URTEK GORAKO HERRITARRAK LAN-MUNDUAN
TXERTATZEKO 40 ORDUKO PRESTAKUNTZA
MAIATZAK 3-14**

4. EDIZIOA



ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA
Epe-muga: Apirilak 21
943-89 08 08 / lanpoltsa@urolakosta.eus

INFORMAZIO SAIOA ONLINE
(GoToMeeting)
Apirilak 14, asteazkena
11:00etan

AGENDA

DEIALDIAK

MAIATZEKO ASTEBURUETAN

Maiatza Dantzan. Astindu Dantza Elkartearen eskutik.

EKAINAREN 1ERA ARTE

XXXIII. Zuri-beltzeko Argazki Lehiaketa, gai librea.

MAIATZAREN 6AN ETA 20AN

Zinegoak film jaialdia.
Aita Marin 19:00etan.

ERAKUSKETAK

MARTXOAK 26-APIRILAK 18

*Etendako itsas-bidaia*k. Ana Benito eta Javier Mazpule.

APIRILAK 22-MAIATZAK 2

Darahli elkartearen Lankidetzeta Astea.

Mendebaldeko Sahara: 45 urte justiziarik gabe.

APIRILAK 27-MAIATZAK 23

Zumaiako kaleko pintura lehiaketa urteetan. Herriko dendetan.

APIRILA

8 OSTEGUNA

Kontzertua: *Musika pixka bat bizitzari*, Intza, Malen eta Nagore.
Komentuan, 18:30etan.

13 ASTEARTEA

Liburu aurkezpena: *Getariako Naufragioak*.
Oxford aretoa, 18:00etan.

15 OSTEGUNA

Zine forum: *Nuevo orden*.
Aita Marin, 19:00etan.

18 IGANDEA

Antzerkia haurrentzat: *Etxean*, Potx eta Lotx Pailazoak.
Aita Marin, 12:00etan.

Kontzertua: *Itsasoari begira*, San Pedro abesbatza.
Parrokian, 19:00etan.

21 ASTEAZKENA

Ipuin kontaketa: *Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak*, Kontukantoi (5-8 urte).
Oxford aretoa, 17:30etan.

22 OSTEGUNA

Naturaldia.
Aita Marin, 19:00etan.

23 OSTIRALA

Antzerkia: *Txanogorritxo eta otso emea*, Tentazioa.
Aita Marin, 19:00etan.

24 LARUNBATA

Kontzertua: Bulego taldea.
Zumaienan, 19:00etan.

29 OSTEGUNA

Zine forum: *MY Mexican Bretzel*.
Aita Marin, 19:00etan.

yoana ✂
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak


Urdeta Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAI

ZUMAI 

AUTOESKOLA

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / zumaiautoeskola@hotmail.com

Berlin blues



Neguko argiak

Egilea: Irati Elorrieta
Argitaratzailea: Pamiela
Argitaratze urtea: 2018
Orrialdeak: 286
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ANTTON PEÑALBA

2019ko Euskadi Literatura Saria dugu *Neguko Argiak* eleberria. Hamar urteren ostean, itzuli da Irati Elorrieta letren mundura. Berlinen bizi da, eta han ondu, han kokatu eta handik ekarri du lan hau euskarazko literaturara.

Marta eta batez ere Añes ditu protagonista nobelak, Berlinen bizi diren bi euskal herritar. Parisen ezagutu dute elkar eta gero Berlinera joango dira. Emakume biekien batera, hirugarren protagonista izan daitekeen beste bat ere badago: hildako bat, Esteban. Añesen sukaldera sartu eta etengabe harekin hizketan agertuko dena. Eta hiru pertsonaia nagusi horien inguruan Añesen eta Martaren ibilbideak zeharkatzen dituzten hainbat pertsonaia badatoz eta badoaz, leihoetan piztu eta itzaltzen diren argiak bezala. Eta egileak eraikitzen duen puzzle antzeko horretan, pertsonaia bilakatzen dira hainbat leku ere: Paris, Uribe Kosta eta batez ere Berlin.

Pertsonaia denak anbizio gutxiko jendea da. Berlinen 1990eko hamarkadan bizitza

antolatzeko era alternatibo bat praktikan jartzeko sortu zen mugimendu komunitarioarekin lotutako pertsonaia dira. Deserrotutako pertsonaia dira, arrazoi ezberdinak direla, bere herria utzi dutenak; baina Berlinen errotu ezinik dabiltzanak. Norberak munduan daukan edo dagokion lekua bila dabilta etengabe. Gaurko hirien bizimoduaren pultsua bizi dute guztiek: bakardadea, zaurgarritasuna, edo behin-behinekotasuna, besteak beste. Europa etxetzat daukan belaunaldi baten irudi dira. Europa natural bizi dute; pertsonaia eta erreferentzietan islatzen da kosmopolitismo hori.

Eleberrian ez du ardatz edo hari sendorik topatuko irakurleak; bai, ordea, Berlingo neguan gurutzatzen diren

**EGILEAK ERAIKITZEN
DUEN PUZZLEAN,
PERTSONAIA
BILAKATZEN DIRA
HAINBAT LEKU ERE**

istorio ugari. 44 kapitulu labur ditu nobelak, eta eszena labur ugariarekin egindako puzzle trebea da. Mota bateko edo besteko biolentziak intentsitate maila ezberdinez ukitutako bizitzak jasotzen ditu, eta eleberrian zehar sortzen diren adiskidetasun harremanak dira sarri prekaritate eta biolentzia horiei aurre egiteko modua.

Une eta eszena domestikoak ikusi egingo ditu irakurleak, entzun, are usaindu, erritmo azkarreko film baten gisan. Ez du intriga handirik topatuko narrazioaren baitan, baina, oraingo eta iraganeko eszenak eta istorioak elkarrekin josiz, aurrera egiten du nobelak, eta gozo iritsiko da amaieraraino, jende multzo baten bizitzen konpainian egon izanaren irudipenarekin.

Denbora-pasa moduan argumentu dibertigarria bilatu nahi duen irakurlea zapuztuta geratuko da nobela honekin. Baina giza arimaren zirrikitueta barneratu nahi duena, sentimenduetan sakondu nahi duena, berehala konturatuko da nobela handi baten aurrean dagoela. ■

Gailuak eta gu



JON MANTZISIDOR URIBIA

Idatzi hau tableten apologia batekin hasten zen, teklaturik gabeko gailu horiek, berriki ezagutu eta plazerez erabiltzen ditudanak irakurtzeko; eskua eta pantailaren arteko erlazio berriak ekarri dituztenak eta ume txikiek ere ia intuitiboki barneratzen dituztenak. Hain gertu daude keinu horiek magoek eskuekin egiten dituztenetatik. Dena den, tarte txikia dagoenez hartu eta zaborretara bota dut zati hori, hemen teklatuari buruz hitz egin nahi baitut.

Gailuek errealitatearekin dugun harremana baldintzatzen dutela argi dago. Sormen lanetan ere gailu baten izaera fisikoak guztiz baldintza dezake emaitza. Gogoan dut musika talde batek teklatu oso bitxi bat zuela: piano tekla zuri-beltzen ordezkusoinuaren baxuen botoien antzekoak zituen. Ez dut berriz ikusi halako teklaturik, baina argi dago ergonomikoki askoz praktikoagoa dela gure eskuentzat horrelako antolaketa, idazteko teklatuaren modukoa, pianoaren teklen antolaketa baino. Pianoak eta bere arbaso klabezin eta abarrek beste arazo batzuk

zitu zuten teklatu elektronikoa edo digitalek ez dituztenak, haiek mekanikoki eta baskula bitartez hatzamarra tekla gainean jartzearen indarra mailu batek soka batzuetan kolpe bat emateraino bideratu behar zuten, bidean sordinak altxatuz eta berriz ere pausatuz. Oso konplexua. Eta teklatik sokaraino lerro zuzen bat eskatzen zuena arazoa gehiago ez konplikatzeko. Besteak beste, behar tekniko horiek erabakiko zuten pianoaren teklatuak duen antolaketa: banan-banan ezkerretik eskuinera lerrokatuta dauden laukizuzen meheak.

Gaizki kontatu ez badut, nire ordenagailuaren teklak 78 dira; piano batenak, 88. Nahiz eta gutxiago izan, erraz irudika ditzakegu beste hamar tekla gure ordenagailuan. Gero konparatu zer distantzia dagoen lehen teklatik azkenera

**SORMEN LANETAN ERE
GAILU BATEN IZAERA
FISIKOAK GUZTIZ
BALDINTZA
DEZAKE EMAITZA**

batean eta bestean. Musika teklatu elektronikoa edo digitaletan ez da beharrezkoa teklak lerrokatu egotea; idazteko teklatu baten antzekoak izan zitezkeen. Baina ez dira. Hor diseinu akastun edo ez-egokienarekin jarraitzen dugu aurrera. Kristalizatu den egitura bat, egitura hobea egon zitekeenean.

Idazteko teklatuaren ere ezaguna da erabiltzen dugun sistema, QUERTY sistema, ez dela gaur egun izan zitekeen egokiena. Hor ere diseinu ez-egokienarekin jarraitzen dugu. Hizkiak teklatuaren zein leku izango zuten erabakitzerakoan proba asko egin ziren; topatu zuten antolaketa bat zeinetan makanografoek abiadura handienera idatz zezaketek, baina garaiko idazmakina mekanikoak ez zeuden abidura hartarako prestatuta eta tratatu egiten ziren. Hori zela eta, makanografoen abiadura motelduko zuten antolaketa bat hobetsi zen. Gaur egun ez dugu idazmakina mekanikorik erabiltzen. baina haien herentzia mantentzen dugu eta ordenagailuen teklatuaren diseinu moteltzaile hori betikotu da. ■■■

Franco



JUAN LUIS ROMATET

Jungen arabera, sinkronismoa bi gertaeraren aldiberekotasun hutsa da. Hau sinatzen duenak italiar abeslari ezagun batekin izandakoa sinkronismoa izan ote da? Ez naiz hainbeste esatera ausartzen, baina hitz hori bueltaka dut buruan eta zerbaitengatik izango da.

Pandemia garaiko iluntze goibel horietako batean ordenagailu aurrean eseri eta Franco Battiato abeslari italiarraren bideoak ikusten jarri nintzen, Youtuben. Hasteko, eta agian anatema izango da hau, ez zait musika italiarra asko interesatzen. Hizkuntzagatik agian, baina nire hezkuntza musikal anglosaxoiak ez du italiera ondo digeritzen. Baina 1980ko hamarkada amaiera hartan Battiato leku guztietan ikus zitekeen; gazteleraz abestutako disko bat argitaratu zuen, *Nomadas*, eta orduko telebistan noiznahi agertzen zen, baita Jose Luis Morenoren atentatu katodiko haietan ere. Geroago jakin nuen Espainiako telebistan eta pop munduan bere lekua aurkitu zuen Battiato hura intelektual bat zela; musika munduan ibilbide luzea izateaz gain, margolaria, idazlea eta zinema zuzendaria ere bazela. Ezjakina ni.

Gauzak nola diren, eta bere disko bat bera ere ez badut ere, orduan entzundako abesti horietako batzuk memorian itsatsita geratu zaizkit. Hiru hamarkada luze pasatu eta gero hor jarraitzen dute neuronak dantzan jartzen. *Voglio vederti danzare*, *Nomadi* edo *Centro di gravità permanente* abestiak ahapetik kantatzen aurkitzen dut batzuetan neure burua, asmatutako italiera batean.

Aste batzuk aurrera eginda –eta hemen dator sinkroniaren kontu hori–, Zarautzera egindako bisita batean, nola ez, Garoa liburu dendara joan nintzen, eta hara non entzun nuen italiarraren musika saltokiko atea zabaldu bezain pronto. *Nomadi* abestia zuten jarrita une hartan, eta han hasi nintzen Garoako Imanol(txor)ekin Battiatoz hizketan. Italian egon zenean haren abestiekin ikasi omen zuen hizkuntza, eta duela hilabete batzuk haren bilduma bat bidali zioten Italiatik. Disko hirukoitz hura zuen jarrita dendan. Etxerakoan bilduma hura aurkitu eta erosi behar nuela agindu nien neuronei, baina dendan zeuden liburuetan murgildu bezain azkar lausotu zen burutazioa.

Eta orain hemen nabil, Battiatori buruz idazten, Youtuben bere abestiak jarrita ditudan bitartean. Eta ez, ez dut haren diskorik erosiko (oraingoz); haren abesti batzuk gustukoak ditut, baina, esan bezala, musika italiarra ez da nire zaletasunen eta fanatismoaren barruan sartzen, eta nahikoa dut noizean behin sarean murgildu eta bere abesti bat aukeratzea. Hala ere, nonbaiten irakurri nuen esaldi hura etorri zait burura: “Franco on bakarra dago munduan, eta hori Battiato da”. Hala izango da. ■■■

**ORDUAN ENTZUNDAKO
ABESTI HORIETAKO
BATZUK MEMORIAN
ITSATSITA
GERATU ZAIZKIT**



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net



burdindegia

Galdona

Denda:

Mendaro marinela, 1

943-14 33 46

Biltegia:

Jose Mari Korta industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

943-86 11 17



Industriarako nahiz **etxerako era guztietako material, tresna, pieza, eta osagarriak**



ZUMAIENAKO BATXILERGOA

HITZIK GABE...

